

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Onestea Asparreneko Udaleko Dirulaguntzen 2022-2024 plan estrategikoa

Asparreneko Udalbatzak, 2022ko azaroaren 3ko osoko bilkuran, erabaki zuen 2022-2024 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onestea; hona hemen hura hitzez hitz.

Asparreneko Udaleko dirulaguntzen 2022-2024 plan estrategikoa

Helburu orokorrak.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotako lege agindua betetzea. Lege horrek, bere 8.1 artikuluan, behartu egiten ditu dirulaguntzak eman nahi dituzten udalak dagokien plan estrategikoa onestera.

- Dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzeko zuzeneko eragina izatea.

- Herritarrek dirulaguntzak eskuratzeko bidea optimizatzea, gardentasun bermeeekin, udalaren irizpideen berdintasunez eta lehia askean.

- Eta udalaren dirulaguntzen kudeaketa arrazionalizatzea, haren plangintzan zeharkakotasunez, prozeduretako sistematikotasunez eta haren ebaluaketarako tresna tekniko aurreratuez hornituz.

Justifikazioa.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 8.1 artikuluan xedatutakoa oinarritzkoa da eta, horregatik, dirulaguntzak eman nahi dituzten udal guztiek dagokien dirulaguntza plan estrategikoa onetsi behar dute.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, legezko arauetan edo erregelamendukoetan xedatuta dauden politika publikoei buruzko planak eta programak dirulaguntzen plan estrategikoak izango dira eta 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutako edukia jasoko dute.

Dirulaguntzen lege orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetu eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legearen printzipioetako bat gardentasuna da. Horrek, legean ezarritako beste hainbat tresnarekin batera, zuzenean dakar dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea.

Horren harira, dirulaguntzen gainean informazio zabalagoa izateak merkatuari eragin ahal dizkion distortsio eta oztopoak ezabatzeko bide emango du, eta administrazio publikoen jardunak osagarriak eta koherenteak izatea erraztuko du, bikoizketak ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da dirulaguntzen plan estrategiko bat prestatu beharra, urte anitzekoa, eta korporazioak elkarteeekin, klubekin, irabazteko xederik gabeko fundazioekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, bestelako erakundeekin eta pertsona fisikoekin egin ditzakeen lankidetzak hitzarmenak edo dirulaguntzak sortu baino lehenagokoa, dirulaguntzen ordenantza orokorrean aurreikusten denaren arabera.

Plan estrategiko hori urtero eguneratu daiteke, ekitaldi bakoitzerako aurrekontuan ezarritakoarekin bat etorriz.

Horregatik, udal honek dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi du. Hona artikulua:

I. kapitulua. Printzipio orokorrak

1. artikulua

Udal honek plan estrategiko honetan ezarritakoaren arabera ezarriko ditu dirulaguntzak 2022-2024 aldian.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak bere 2.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, ez dira plan honen eremuan sartzen, dirulaguntzat hartzen ez baitira, Asparreneko Udalak beste herri administrazio batzuei administrazioaren jardura oro har finantzatzeko egiten dizkien diru ekarpenak; Asparreneko udalari dagokionez, ekarpen horiek egiten zaizkien erakundeak honakoak dira: Arabako Lautadako Kuadrilla, Entziako partzuergoak, Gipuzkoa eta Arabako partzuergoa, Arabako Foru Aldundia edo udalak.

Halaber, ez dira jasotzen udalak bera bazkide den erakundeei ematen dizkien urteko kuotak (EUDEL-Euskal Udalen Elkarte, Musika Eskolen Elkarte, Arabako basogintza elkarte).

2. artikulua

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurrekontuetan esleipenak egitea, eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onartzea.

Jarduketa lerro bakoitzerako ezartzen diren aurrez ikusteko moduko kostuak aldatu ahal izango dira aurrekontua gauzatzeko udal arauan urtero ezartzen den gastuaren aurrekontu lotura mailaren arabera.

3. artikulua

Dirulaguntzak emateko baldintza da aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzea. Hortaz, onartzen diren aurrekontu esleipenak eta oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira beti.

4. artikulua

Dirulaguntzen plan estrategikoa onesteak ez du esan nahi balizko pertsona edo erakunde onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

5. artikulua

Plan honen printzipio orokorrak hauek dira:

– Publizitatea eta lehia askea, aurretiazko deialdia dela medio, zeinean bermatu beharko baitira objektibotasuna, gardentasuna, publikitatea, lehia eta berdintasuna funts publikoen banaketan. Horrek guztiak ez du eragozten zuzeneko emakida egiterik. Azken honetarako, aplikagarria den arauan xedatutakoarekin bat etorri, behar den aldez aurreko aurrekontu esleipena izan beharko da.

– Irizpide objektiboen arabera ematea eta irizpide horiek alde aurretik deialdian finkatuta egotea, onuradun izan daitezkeen elkarteek, enpresek edo pertsonak horiek alde aurretik aurretik ezagutzea bermatzearen.

– Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean, zeinak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko baitira.

– Erakunde eskatzaileen helburuak diruz lagundutako jarduerak burutzeko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioetara moldatzen diren kontrolatzea eta aztertzea.

Eta, bereziki, plan estrategikoaren bidez kotasuna egiaztatzea, honako hauei dagokienez:

- Planaren justifikazioa gizarte ikuspuntutik.
- Atenditzen dituen herritarren beharrianak.
- Finantza gaitasuna.
- Udalak arlo horretan duen eskumena azaltzea.
- Dirulaguntza lerro hau ez aplikatzearen azterketa.

6. artikulua

Kudeaketa ekonomikoa garatzeko eta, beraz, dirulaguntzen plan estrategikoa betetzeko eginkizuna esleituta duen organoa, laguntzak edo dirulaguntzak emateko eskudun dena, tokiko gobernu batzordea edo udalbatza izango da, ordenantzak edo, hala badagokio, lankidetzaz hitzarmenak xedatutakoaren arabera.

Hortaz:

- Dirulaguntza programak nahikoa eta egokia den aurrekontu zuzkidura izateko baldintzaren pean egongo dira.
- Zuzeneko dirulaguntzak edo emakidak (izendunak-hitzarmenak) eman aurretik, gastua onartu behar da, Asparreneko Udalaren aurrekontua betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.
- Dirulaguntzak eman baino lehenago, emakida arautzen duten oinarri edo arauak onartu beharko dira.

II. kapitulua. Planaren edukia

7. artikulua

Plan honetan indarraldirako aurreikusten diren laguntza eta dirulaguntzen emakidak, eranskinean, honako hauek jasotzen ditu:

- Erdietsi nahi diren helburuak.
- Aplikagarria den emakida mota.
- Zein elkarte, entitate edo pertsona onuraduni zuzenduta dagoen.
- Urteroko aurrekontuetan ezarritako diru kopurua.

8. artikulua

Plan hau eranskin batean egituratzen da. Eranskinak dirulaguntza jasoko duen jardueraren zerrenda eta banantzea dakar, eskumen arloen arabera.

9. artikulua

Aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak irizpide hauen arabera ordenatzen dira:

- Erakunde emailea: dirulaguntza kudeatzen eta izapidetzen duen zerbitzua azaltzen da.
- Xedea: dirulaguntza zein helburutara zuzentzen den finkatzen da; geroago helburu hori ebaluatuko da.
- Kudeaketa mota: emakidarako aplikatu beharreko prozedura finkatzen da, ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz.
- Dotazioa: dirulaguntza bakoitzerako aurrez jotako esleipena jartzen da.

III. kapitulua. Dirulaguntzen onuradunak eta zer arlotan emango diren

10. artikulua

Udalak dirulaguntzak emango ditu, norgehiagoka erako deialdi publikoaren edo lerro izendunen bidez, lankidetzaz hitzarmenak sinatuz, pertsonen, elkarten edo erakunde pribatuen alde, onura publiko edo gizarte intereseko jarduerak egitea sustatzeko edo tokiko eskumenari dagozkion xede publikoak lortzea sustatzeko, erroldatutako pertsona fisikoak, elkarten erregistroan erregistratutako elkarteak edo erakunde pribatuak lehenetsiz, udalerrian errotuta daudenak eta jarduera egiaztatua dutenak, sortu berrientzat izan ezik.

Halaber, dirulaguntzak emango zaizkie ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuko izenen zerrendan agertzen diren pertsona, erakunde edo elkarteei, beti udalerrientzat interes berezia duten jarduerak edo programak egiteko edo sustatzeko badira. Eranskinean zuzenean emateko modalitatean ageri diren dirulaguntzak ez dira ez eskusiboak ez lotesleak.

11. artikulua

Asparreneko Udalak urtero ezarriko ditu dirulaguntzak eskumen arlo edo gai hauetan:

- Lankidetzeta eta garapena.
- Gizarte ekintza.
- Euskara.
- Kultura eta hezkuntza.
- Kirolak.
- Ingurumena.
- Beste erakunde batzuen lankidetzeta.

Halaber, Asparreneko Udalak plan hori eguneratu ahal izango du eremu berriak barne hartuz, baldin eta herri eta gizarte interesekoa bada.

IV. kapitulua. Diruz lagundutako programen eraginkortasuna ebaluatzea. Emaizten analisia

12. artikulua

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto analizatzeko, udalaren zerbitzu desberdinetako teknikariek erakunde eta pertsona onuradunei arrazoitutako txostena eskatuko diete honako hauen inguruan: burututako ekintzen kopurua, dirulaguntza jasotzen duten herritarren kopurua eta lortutako helburuen justifikazioa.

13. artikulua

Ebaluaziorako, honako hauek edukiko dira kontuan:

- Xedea.
- Pertsona edo erakunde onuraduna.
- Diruz lagundutako zenbatekoa.
- Dirulaguntzaren zenbatekoarekin burututako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintza zenbat herritarri iritsi zaien.
- Erakunde emailearen balioespena, emateko garaian erdietsi nahi ziren helburuetara egokitzeari buruz eta haren jatorria den programa mantentzearen edo deuseztatzearen egokitasunari buruz.

V. kapitulua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

14. artikulua

Ogasun Batzordeko buru den pertsonak kontrolatuko du plan hau bere indarraldian betetzen dela.

Diruz lagundutako programen finantza kontrolaren arduraduna Udal Kontu-hartzaitza da. Berak ondoko hauek aztertuko ditu: diruz lagundutako zenbatekoak ordaindu diren egunak, espedientean aurrez ikusitakoekin alderaturik, ordaintzeko erabili diren bideak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatutako betebeharren justifikazioa.

Urtero, lehen hiruhilekoan, ogasun batzordeko buru den pertsonak txosten bat aurkeztuko dio batzorde horri, planaren gauzapena ebaluatzen duena.

15. artikulua

Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana egin aurretik, Ogasun Batzordearen buruak memoria aurkeztuko dio udalbatzari; bertan, gutxienez, hauek agertuko dira: plana zenbateraino bete den; dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia, lortu nahi ziren helburu eta ondorioei dagokienez; eta ondorioak, bai eta hurrengo dirulaguntzen plan estrategikoa taxutzeko iradokizunen proposamena ere.

I. eranskina: Dirulaguntza jardueraren zerrenda eta banatzea eskumen arloen arabera**Garapenerako lankidetza**

Aurreikusitako kostua:

2022an, 8.500,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrianen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetza gaiaren deskribapena:

Garapen bideko herrialdeen garapen jasagarria sustatzen duten proiektuei eta programei laguntzea, genero berdintasuneko eta lankidetzako irizpideekin eta komunitate bakoitzaren kulturak eta identitateak errespetatuz, eta tokiko erakundeekin eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeekin (GGKEak), elkartasun taldeen eta garapen bideko herrialdeekiko garapenerako lankidetzari eta elkartasunari lotutako bestelako erakundeekin arteko harremanak eta lankidetza sustatzea.

Lortzeko epea:

2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

Garapenerako nazioarteko lankidetza ekimenak sustatu, lagundu eta koordinatzea, eta bereziki, euskal toki erakunde eta entitateetatik giten direnak.

Erakunde hartzaileak:

– Euskal Fonda, ekitaldi bakoitzean erakunde horren lankidetza proiektu bati edo batzuei zuzenean emanez.

– Interesekotzat jotzen diren proiektuak aurkezten dituzten GGKEak, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan jasotako zuzeneko emakidaren bidez edo lehiaketaren bidez.

Gizarte ekintza

Aurreikusitako kostua:

2022an, 4.000,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrianen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetza gaiaren deskribapena:

Gizarte esku hartze eta ekintza programak antolatu eta egitea erraztea eremu hauetan: berdintasuna, haurrak eta gazteak, adinekoak, eta, arrazoi ekonomikoengatik, desgaitasun fisikoko arrazoiengatik, gizarte arrazoiengatik nahiz etorkinen taldeetakoak izateagatik, gizarte bazterketatik gertuko egoeran dauden taldeak. Programei laguntza eman ez ezik, banako laguntzak eman ahal izango zaizkie pertsona edo erakunde jakinei, gizarte bazterketako egoerek eragindako ondorio ekonomikoak urritzeko.

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

- Emakumea sustatu eta lan munduan sartzeko jarduerak gehitzea, haien bizitzaren alderdi guztietan berdintasuna lortu nahian.
- Prestakuntza, aisia eta astialdiko jarduerak, dirulaguntza horien xede diren taldeen bizi kalitatea hobetu eta handituko dutenak, eskaintzea, motibatu eta bazterketatik edo gure gizartearen arazoetatik (droga mendekotasuna, zenbait motatako mendekotasun, bakardadea...) urruntzeko xedez.
- Dirulaguntza horien xede diren taldeen kultura kontsumoa erraztea, espiritu kritikoa sustatuz.
- Gizarte bazterkeriatik hurbil dauden pertsonen gizarte bazterketa saihesten saiatzea, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai sexua-generoa diskriminazio sistemarekin lotutako arrazoiengatik, bai desgaitasun fisikoagatik edo arrazoi sozialengatik.

– Eskatzailearen edo haren senideen gizarte bazterketa edo askatasun ezeko egoerek eragindako ondorio ekonomikoak urritzea.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundeak edo partikularrak, lehiaketan, lehia askean, dagokion ordenantzak ezarritako prozeduraren arabera.
- Caritas edo interesekotzat jotzen diren proiektuak aurkezten dituzten bestelako erakundeak, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan jasotako zuzeneko emakidaren bidez edo lehiaketaren bidez.

Euskara

2022an, 6.000,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharizanen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetzaren deskribapena:

Euskara ikasteko laguntzak eman eta euskara sustatzeko ekimenak egitea sustatzea.

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

Euskara normalizatu eta bereziki Asparreneko auzokoek hizkuntza hori gehiago ezagutu eta erabiltzea.

- Herritarrek euskara ikastea erraztea, euskara udalerrian egiten diren jardueren mota guztietan gehiago erabiltzea, euskararen erabilera zabaltzen laguntzea.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

- Euskara sustatzeko ekitaldiak, interes berezikotzat jotzen direnak, antolatzen dituzten erakundeak (esaterako, Araba Euskaraz, Korrika, Euskaraldia), zuzenean emanez, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak zehaztutako kopuruaren arabera.
- Dagokion ordenantzak euskara ikasteko beka edo laguntzak eskatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten partikularrak.
- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundeak edo partikularrak, lehiaketan, lehia askean, dagokion ordenantzak ezarritako prozeduraren arabera.

Kultura eta hezkuntza

2022an, 67.000,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrianen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolahi ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetzaren deskribapena:

Laguntzak ematea eskolaz kanpoko jarduerak egiteko eta jardura soziokulturalak egiteko musikaren, arte eszenikoen, plastikoen, zinematografikoen eta kultura tradizional eta herrikoaren eremuetan.

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

– Haurrentzako jardura soziokulturalak egitea sustatzea eskolaz kanpoko denbora esparruan (iraila-ekaina).

– Asparrena udalerriko kontzejuek dinamizatzen dituzten jardura soziokulturalak egitea.

– Hauek erraztea: herritarren musika prestakuntza, musika jarduerak, kontzertuak udalerrian zein handik kanpo programatzea, musika ikuskizunak, talde trukeak, abesbatzak eta musika bandak eratzea.

– Udalerrian ikuskizun gehiago egitea, musika talde berriak eta kanpoaldeko kultura jarduerak eratzea.

– Erakusketa kopurua handitzea, argazkigintza sustatzea, erakusketa zinematografikoak, antzerki, dantza, eszenografia ikuskizunak, tradizioak, herriko jaiak eta erromeriak, eta Artzai Egunaren inguruko jarduerak.

– Udalerrian erakusketa eta antzezpen gehiago egitea, baita argazki erakusketa eta lehiaketak ere, herritarrei programazio zinematografiko bat bermatzea, dantza jarduerak eta prestakuntza bultzatzea, udalerriko tradizio etnografiko kulturalak gorde eta, beharrezkoa bada, berreskuratzea, hala nola Egino, Ilarduia eta Andoingo landa inauteria, eta udalerriko biztanle guneen arteko herriko jai adierazpenak garatzea erraztea.

– Asparreneko elkarte mugimenduak edo kultura sustatzen duten pertsona edo erakundeek egindako jardura soziokulturalak eta musika jarduerak egitea bultzatzea.

– Ekipamendua erosteko oinarrizko premia duten jarduerak garatzen laguntzea, bestela ezinezkoa izango bailitzateke jardura horiek egitea, bai eta udalerriko gizarte eta kultura elkarteek goragoko ekipamendu baten ordezkotzat erostea ere.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

– Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundeak edo partikularrak, lehiaketan, lehia askean, dagokion ordenantzak ezarritako prozeduraren arabera.

– Asparreneko kontzejuek, jaiak eta jardura soziokulturalak egiteko, zuzenean emanez, kontzejuekiko lankidetzaren hitzarmenaren arabera.

– Udalerriko kultura elkarteak interes berezikoat jotzen diren jarduerak antolatzeke, zuzenean emanez ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak zehaztutako kopuruaren arabera. Zuzenean emandako kultura dirulaguntzen izenen zerrenda ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak ezarriko badu ere, jardura hauek interes berezikoak dira, zerrenda itxia ez bada ere:

– Ilarduia, Egino eta Andoingo landa inauteriak antolatzea (Ilegan kultura elkarteak).

– Artzai Eguna antolatzea (Auzolan Andra Mariko Batzarra Elkarteak).

- Urte Bukaera Musikalak musika jarduerak antolatzea (German Maria de Landazabal musika elkarte).
- Emakumeentzako urteko sustapen soziokulturaleko programa antolatzea (Amamio emakumeen elkarte).
- Ikasturtean garatu beharreko eskolaz kanpoko jardueren programa antolatzea (Aratzpe Guraso elkarte).
- Hirugarren adinekoentzako sustapen soziokulturaleko programa antolatzea (Atzoko Gazteak elkarte).
- Kultura ondarea sustatzeko Marutegi Gaztelu eguna programa antolatzea (Uharka Kultur Elkarte).
- Euskal dantzetako prestakuntza eta sustapen programa antolatzea. (Asparreneko dantza gorri taldea).
- Araiako abesbatza eta banda musika prestakuntza eta sustapen programa antolatzea (German Maria de Landazabal musika elkarte).

Kirolak

2022an, 30.000,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrianen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPlren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetzaren deskribapena:

Kirol planak, programak eta jarduerak egiteko dirulaguntzak.

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

- Asparreneko herritarrek kirola egitea sustatzea, udalerriko kirol taldeen bitartez, eta herritarrek kirola egitea sustatzea.
- Herritarren osasuna sustatzea, kirol jarduerak bultzatzea udalerrian, kirol jarduerak programatu edo egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuei laguntzea kirol lehiaketak edo ekitaldiak egiteko...
- Udalerrian kirola egiteko beharrianak finantzatzen, kirol federazioetan pertsona gehiago federatzen, udalerrian mailan lehiaketa gehiago egiten eta udalerrian kirol jarduerak eta ekitaldi gehiago egiten laguntzea, batez ere haurren eta emakumeen artean. Halaber, kirola sustatzen eta ia herritar guztientzako kirol jarduerak egiten diharduten erakundeak eratzea.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundeak edo partikularrak, lehiaketan, lehia askean, dagokion ordenantzak ezarritako prozeduraren arabera.
- Asparreneko kontzejua, kirol jarduerak egiteko, zuzenean emanez, kontzejuekiko lankidetzaren hitzarmenaren arabera.
- Udalerriko kirol taldeak interes bereziki jotzen diren jarduerak antolatzeko, zuzenean emanez ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak zehaztutako kopuruaren arabera. Zuzenean emandako kultura dirulaguntzen izenen zerrenda ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak ezarriko badu ere, jarduerak hauek interes berezikoak dira, zerrenda itxia ez bada ere:
 - Txirrindularitza saria antolatzea (Arriolako administrazio batzordea).
 - Zenbait mailatako futbola sustatu eta horretan jarduteko programa antolatzea (Alipendi kirol kluba).

- Esku pilota sustatu eta horretan jarduteko programa antolatzea (Araia pilotaren eskola).
- Txirrindularitza sustatu eta horretan jarduteko programa antolatzea (Aratz txirrindulari elkarteak).
- Familiak natura ingurunean gizarte eta kirol jardueretan aritzea sustatzeko programa antolatzea. (Atxipi taldea).
- Familientzako Mitxarro Bira mendizaleen praktika programa, mendiko beste kirol hitzordu batzuk eta Araia Mendi Festibal antolatzea, ingurune naturalean. (Altzania taldea).

Ingurumena

2022an, 1.200,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrezkoen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetzaren deskribapena:

Ingurumenari lotutako jarduerak egiteko dirulaguntzak.

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

- Sentsibilizazio, sustapen eta prestakuntza jarduerak sustatzea ingurumenaren arloaren esparruan.
- Ingurumenari buruzko sentsibilizazio, sustapen eta prestakuntza jarduerak egitea erraztea, ingurumenari eta, beraz, sistema jasangarri batean oinarritutako ingurumenaren kudeaketa onari buruzko sentsibilizazio positiboa bultzatzen duten jarduerak programatzen edo egiten dituzten mota orotako erakunde publiko eta pribatuei laguntzeko.
- Udalerriko herritarrek orokorrean parte hartzen duten kanpainak, programak eta ekintzak finantzatzen laguntzea, ingurumenari buruzko sentsibilizazioa hobetu nahia, batez ere haurren artean.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundeak edo partikularrak, lehiaketan, lehia askean, dagokion ordenantzak ezarritako prozeduraren arabera. Zuzenean emandako kultura dirulaguntzen izenen zerrenda ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak ezarriko badu ere, jarduerak hauek interes berezikoak dira, zerrenda itxia ez bada ere:

Ingurumenari buruzko sentsibilizazio programa (Ama-Lur Natur Elkarteak)

Lankidetzaren beste erakunde batzuekin.

2022an, 81.000,00 euro. Kostu hori kalkulu bat da eta azkenean udalaren beharrezkoen arabera onartzen den aurrekontuaren arabera izango da. Hurrengo ekitaldietarako, ekitaldi horretako aurrekontuan jasotakoa, KPIren igoerekin edo igoera handiagoekin udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu eta nolana ere igoera hori aurrekontu egonkortasuneko eta gastu mugako helburuekin bateragarria bada. Dena den, gehieneko muga bat izango du eta muga hori ehuneko 5 izango da. Halaber, zenbatekoa aldatu ahal izango da aurrekontua gauzatzeko udal arauak urtero ezartzen duen gastuaren aurrekontuarekiko lotura mailaren arabera.

Lankidetza gaiaren deskribapena:

Laguntzak Asparreneko kontzejuei inbertsioak egiteko eta erakundeei dirulaguntzak ematea onura publiko eta sozialeko helburuak dauzkaten beste erakunde batzuekin lan egitea bultzatzeko

Lortzeko epea: 2022-2024.

Helburuak eta nahi diren ondorioak:

– Kontzejuetan ekipamenduak eta azpiegiturak hornitzea erraztea; kontzejuetako herritarren biztanleen bizi kalitatea Araiakoenaren atzekoa izatea bermatzea.

– Laguntza finantzarioa ematea kontzejuei oinarrizko azpiegiturei eta zuzkidura eta komunitate ekipamenduei dagozkien obrak egiteko, eta oro har ondasunak eskuratu eta obrak eta inbertsioak egiteko, batez ere Obren eta Zerbitzuen Foru Planeko, obra txikietako eta auzo harremanetako programetan sartutakoak.

– Interes publiko eta sozialeko helburuak dituzten beste erakunde batzuekiko lankidetza bultzatzea.

Erakunde eta pertsona hartzaileak:

– Asparreneko kontzejuak, obrak eta inbertsioak egiteko, zuzenean emanez, kontzejuekiko lankidetza hitzarmenaren arabera.

– Elkarreak edo erakundeak, haiekin lankidetza hitzarmena sinatu ahal balitz.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Araia, 2022ko azaroaren 14a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ